

NOVEMBRE 2021 EKO AZAROTIK
DÉCEMBRE 2021 EKO AZAROTIK
ABENDURA

19 >> 03



euskararen urtaroa ZIBURUn



LITTORAL BASQUE
EUSKAL ITSASBAZTERRE



www.communauté-paysbasque.fr • www.mairie-ciboure.fr



euskararen urtaroa

Euskararen Urtaroa 2 urtero antolatzen da, Euskaraldiarekin aldizkatuta. Euskal Hirigune Elkargoak daraman ekitaldi parte-hartzailea da.


Ekitaldiaren egitaraua herriekin, eragile pribatuekin eta elkarteekin batera moldatzen da, eta biztanleak euskararen inguruan biltzea du xede. Euskaldunentzat, euskaraz bizitzeko parada da; ikasten ari direnentzat, euskara testuinguru jostagarrian erabiltzekoa; eta gainerateko guzientzat, gure hizkuntza bizia entzutekoa!

2021ean, Euskararen Urtaroa azaroaren 19tik abenduaren 3ra iraganen da.

Ziburuko hiriak gertakarian azkarki parte hartzen du, lurraldeko elkarte guziekin batean urte osoan euskararen aldeko dinamika bultzatuz. Denen artean, programa eklektikoa sortzen da; ekitaldi batzuk denei zuzenduak zaizkie, bertzeak eskoletako ikasleei; batzuk, euskaldunei; bertzeak, euskara ikasten ari direnei ala jakinmina duen orori!

2021EKO EGITARAUA

Eguna	Ordua	Animazioa	Tokia	Hizkuntza
Urriaren 27tik azaroaren 17ra	Mediatekako ordutegia	"Cadavre exquis" jokoa	Mediateka	EU/FR
Azaroaren 20a eta 27a, larunbata	10:00-12:00	Jakintza elkartearen permanentziak	Ravel ebxean	EU
Azaroaren 23a, asteartea	18:30	Kubxetan Ibilki	Parrokiako gelan	EU
Azaroaren 23ko asteartetik abenduaren 10eko ostiralera	9:00-12:00 14:00-17:00	Euskal kostaldea, mugitzen den itsas hegia	Herriko kontseiluaren gelan	EU/FR
Azaroaren 24a, asteazkena	9:30	Anim"irakurketak	Mediateka	EU
	14:00-17:00	Battelekuan hasteko ikastaldia	Larraldenia portuan	EU/FR
	20:00-22:00	Herri Txiki, Infernu Handi	Erabilera anitzeko gelan	EU
Azaroaren 26a, ostirala	18:00	Anim"irakurketak	Mediateka	EU
Azaroaren 27a, larunbata	10:30-11:30	"Ene Zuhaitza"	Gurutze Gorriko auzoan	EU
	11:30-12:30	Bertso poteoa	Gurutze Gorriko auzotik Baltsanera	EU
	13:00-17:00	Bertso bazkaria	Baltsanen	EU
	15:00-17:00	Boleibol ikastaroa	Herriko plazan	EU
	16:00-18:00	Tailerrak eta jokoak	Herriko plazan	EU
	18:00-19:00	Kantaldia	Herriko plazan	EU
Azaroaren 30a, asteartea	19:00	Kontzertu gaualdia	Leo Lagrange klubean	EU
		Asisko Urmenetaren mintzaldi ilustratua	Bordagaingo dorrean	EU
Abenduaren 2a, osteguna	19:00	Mintzodromoa	Herriko plazan, karpa azpian	EU
Abenduaren 3a, ostirala	20:30	Freestyle rap	Erabilera anitzeko gelan	EU



Urriaren 27tik azaroaren 17ra

“Cadavre exquis” joko

Mauletik Hendaiara, mediateketan kaier zuri handiak utzi ditugu. Kaiarren lehen orrian, denek esaldi bera dute. Parte hartu nahi duen bakoitzak irakur dezake, orria itzuli, eta bere esaldia idatzi; eta abar... Surrealistek asmatu zuten “cadavre exquis” jokoaren gisako ariketa horretan, hitzek hamaika bide hartuko dituzte, eta emaitza harrigarria sortuko da, dudarik gabe. Bukaeran, Irisarrin gauraldi surrealista iraganen da, 2021eko abenduaren 3an, eta bertsolari eta marrazkilariekin batera, kaiurretan idatzi denaren berri ukanen dugu...



Euskal Hirigune Elkargoko hizkuntza politikaren zuzendaritzak antolatua.

Mediatekan • Denentzat • Sartzea urrik, mediatekaren irekitze tenoreetan


Azaroaren 20a eta 27a, larunbata, 10:00etatik 12:00etara

Jakintza elkartearen permanentziak

EU

Zatoz JAKINTZA kultura eta historia elkartearen ezagutzera, euskaraz! 1998tik, boluntario eta kide anitzek Euskal Herriko historiari buruzko ikerketak egiten dituzte eta gure ondarea babesten laguntzen dute. Elkarteak, urte osoan, mintzaldiak eta kultura-ateraldiak antolatzen ditu, eta hiruhileko guzietz historiari buruzko aldizkaria argitaratzen du.

Ravel etxean • Denentzat • Sartzea urrik



Nanoua konpainiaren

Kutxetan Ibilki ikusgarria

Hainbat eta hainbat objektu berez lagundurik, jokalaria alai batek gure irudimenetako oihanera eramaten gaitu. Izaki bitxiak aurkeztuko eta kontatuko dizkigu. Horietako bakoitza kutxatik aterako da, eta bide berriak atzemanen ditu, ausardiaren eta askatasunaren loreak biltzeko eta bertzetasunarekin topo egiteko.

Sorkuntza hori sentimenduz eta zentzuz bete gazte literaturako albumetatik libreki inspiratua da. Beldurraren hormak eraisten ditu, eta bertzeekin eta naturarekin dugun harremanaz gogoetazten gaitu.

Euskal Kultur Erakundearekin batean antolatutako programa.

Parrokiako gelan • 6 urtetik goiti
Erreserbatzeko, Kultura eta Elkarteen Bizia zerbitzura jo



©Sebko



euskararen
urtaroa

La saison de l'euskara

Azaroaren 23ko asteartetik abenduaren 10eko ostiralera

9:00-12:00 eta 14:00-17:00

EU FR

Erakusketa

“Euskal kostaldea, mugitzen den itsas hegia”

Euskal Hirigune Elkargoak “Euskal kostaldea, mugitzen den itsas hegia” erakusketa sortu du, euskal kostaldearen eta haren erabilpenen bilakaera denok hobe uler dezagun.

Itsasoak lurra higatzen eta urperatzen du, eta horrek aldaketa batzuk eragiten ditu. Negu guzietz, ekaitzak eta itsas sagailoak direla eta, herriek kostaldera eta hondartzetara sartzea debekatu behar izaten dute.


Erakusketa jostagarri eta interaktibo horretan, lau modulu baliatzen dituzte fenomeno horiek joko azaltzeko. Ikusle bakoitza bere bisitaren eragile bilakatzen da... baita, bide batez, bere ingurumenaren aldeko eragile ere!

Hitzorduek:

- Bisita gidatua azaroaren 24an, 14:30etik 15:30era frantsesez eta 15:30etik 16:30era euskaraz
- Bisita lekuan bertan, abenduaren 1.ean, 14:00etatik 16:30era, frantsesez

Herriko kontseiluaren gelan • Denentzat

Erakusketa eta sartzea urririk dira; animazioetan parte hartzeko, CPIEn izena eman



Azaroaren 24a, asteazkena & azaroaren 26a, ostirala

EU

Mediatekako Anim'irakurketak

Azaroan, bi anim'irakurketa euskaraz izanen dira! Zatoz seme-alabekin, liburuen eta josteta kantuen inguruan Libreplume elkarteko Anarekin momentu goxo bat pasatzera.

- Azaroaren 24a, asteazkena, 9:30. 0-4 urtekoentzat
- Azaroaren 26a, ostirala, 18:00. 4 urtetik goiti

Mediatekan • Izena mediatekan eman (leku mugatuak: 4 familia gehienez)

Azaroaren 24a, asteazkena, 14:00etatik 17:00etara

EU

FR

Battelekuan hasteko ikastaldia Ur Ikarak emana

Ohi ez bezala, azaroan, Ur Ikara elkarteak bere ontzietako bat aterako du, battelekuan hasteko ikastaro bat emateko, euskaraz! Euskal Herriko ontzioletako ikur den ontzi ttipi berezia gure kostaldeetan ibiltzen ikusia dukezu! Elkarte hurrengo ekitaldiak prestatzen ari da: Teink trofeoa eta batteleku txapelketa!

Larraldenia portuan • Denentzat • Urririk


Azaroaren 24a, asteazkena, 20:00etatik 22:00etara

EU

EiTBren Herri Txiki, Infernu Handi emankizunaren grabaketa publikoa

Euskal Herrian kultu bilakatu den emankizunaren 8. denboraldia hasi da. Ipar zein Hego Euskal Herriko 175 herritan ibili ondotik, gure hiriarren aldi da bere egunerokotasuna salatzea ziburutar batzuekin eramandako elkarrizketen bitartez, leku batzuen bisitaren bitartez, bai eta Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleen umorez eta zirtoz beteriko bakarriketa eta bertsen bitartez ere!

Erabilera anitzeko gelan • 16 urtetik goiti
Erreserbatzeko, Kultura eta Elkarte Bizia zerbitzura jo



euskararen
urtaroa

La saison de l'euskara

AZAROAREN 27a, LARUNBATA

EUSKARAREN URTAROAREN EGUN NAGUSIA ZIBURUN

10:30etatik 11:30etara

EU

“Ene Zuhaitza”

Ikasturte hastapenetik, Maddi Zubeldia eta Michel Claudio eskola arteko proiektu bat lantzen ari dira euskarazko poesiaren inguruan, “Ene zuhaitza” (irudimenezkoa ala egiazkoa) gaiarekin. Ziburuko eskoletako eta Piarres Larzabal kolegioko ikasleei hitz bat, esaldi bat ala olerki bat idazteko eta hosto formako paper batean idazteko proposatzen diete. Azaroaren 27an, larunbatarekin, denok bil daitezten, sorkuntza horiek musikaz lagundurik entzuteko! Momentu poetiko polita izanen da, gure euskara loratzen lagunduko duena.

Gurutze Gorriko auzoan (Uria balitz, Gurutze Gorri eskolako aterpean)

11:30etatik 12:30etara

EU

Bertso poteoa

Bertsularien lagunek, Baltsanek eta Ziburuko hiriak Gurutze Gorrira gonbidatzen gaituzte, bertsolari belaunaldi berria txalotzera! Kalejira horretan, trikitalari baten musika lagun ukanen dugu, plazaz plaza eta ostatzuz ostatu, eta euskarazko ondarearen funtsean diren bertsoen inguruan momentu atsegin bat partekatuko dugu!

Gurutze Gorriko auzotik Baltsanera • Denentzat

13:00etatik 17:00etara

EU

Baltsanen Bertso bazkaria

Urtebeteko eten bortxatuaren ondotik, Baltsan elkarteak, Bertsularien Lagunekin batean, ziburutarrak eta inguruetak bertsozaleak urteroko bertso bazkaria deitzen ditu. Aurten, Baltsan elkarteak bertso eskolen eta horien bultzatzaileen lana txalotu eta gorai patu nahi du. Bertsolaritza, Xiberon, Baxenabarren eta Lapurdin, biziberritzen ari da, aspaldian baino indar handiagoa du; hein handi batean, arrakasta hori Bertsularien Lagunak elkarteko aitzindariari zor zaie.

Baltsanen • Denentzat • Erreserbatzeko, Baltsan elkartearengana jo

15:00etatik 17:00etara

EU

FR

Boleibolean hasteko ikastaroa

Donibane Lohizuneko eta Ziburuko Volley-Ball klubaren eskutik

Donibane Lohizuneko eta Ziburuko Volley-Ball kluba etorriko zaigu, boleibola ezagutaraztera eta saiaraztera eta talde kirol horren inguruan familian ala lagun artean momentu goxo bat pasatzera! Kirolean aritzeko eta euskaraz bizitzeko aukera ederra!

Herriko plazan • Denentzat

16:00etatik 18:00etara

EU

Tailerrak eta jokoak Kaskarotenea ikastolak emanik

Kaskarotenea ikastolak Euskararen Urtaroarekin bat egiten du eta herriko plazara etorriko da, ttipiei eta handiei euskarazko joko-tailerrak proposatzera! Denen gusturik izanen da!

Herriko plazan • Denentzat

18:00etatik 19:00etara

EU

Ziburu Euskaldunen Kantaldia

Ziburu Euskaldunek frontoira gonbidatzen gaitu, kantuen inguruan oren bat partekatuzera. Ziburu Kantuz biziko dugu! Elkarrekin euskal kultura biziaren alde ari da lanean; besteak beste, euskal kantu herrikiokiak ikasteko kurtsuak proposatzen ditu.

Herriko plazan • Denentzat

21:00etatik goiti

EU

Kontzertu gaualdia Leo Lagrange klubean

Osagarri krisiaz geroztik lehen aldiko, Leo Lagrange klubak atea berriz zabalduko ditu, musika eta lagunarteko giro gaualdia antolatzeko! Zatoz trago baten eta jateko goxoen inguruan euskal kantuen errepertorioa ezagutzera!

Leo Lagrange klubean • Denentzat • Sartzea urririk



Azaroaren 30a, astearta, 19:00



EU

Asisko Urmenetaren **mintzaldi ilustratua**

2020 hondarrean, Asisko Urmenetak "Sugarren Mende" saiakera grafikoa argitaratu zuen, Herrima eta Erroa argitaletxeekin. Helena Xurio Arburuaren eta ikerlari anitzen laguntzaz, Urmenetak ikerketa eta bilketa lan handia egin du, XVII. mendeko Euskal Herria eta sorginen kontrako inkisizioa iruditan kontatzeko.

Mintzaldi ilustratu horren bitartez, uste komunak gainditzeko eta gertakari horiek garaiko testuinguru geografiko eta historikoan berriz kokatzeko parada ukanen dugu.

Bordagaingo dorrean • Denentzat
Frantseserako aldibereko itzulpenarekin
Erreserbatzeko, Kultura eta Elkarte Bizia zerbitzura jo



Abenduaren 2a, osteguna, 19:00

EU

Mintzodromoa AEK-k antolatua

Euskaraz mintzatu nahi? AEK elkarteak MINTZODROMOA antolatzen du. Hurbilduko diren guziak euskaraz mintzatuko dira, eta, aldi berean, momentu atsegin bat pasatuko eta jende berria ezagutuko dute. Edozein izanik ere euskara maila, denak joan daitezke: parte hartzeko gogoia da kontuan hartuko dena. AEK elkarteak Euskal Herri osoan dabil lanean, Euskal Herriko biztanle bakoitzak euskara jakin dezan eta egunerokoan normaltasun osoz balia dezan.

Herriko plazan, karpa azpian • Denentzat • Sartzea urririk

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 3a, ostirala, 20:30

EU

Freestyle rap

Euskararen Urtarora bikain bukatzeko, baliatze anitzeko gelarat hurbildu freestyle rap saioa entzuterat, Iñaki Viñaspre, Haritz Cadaval, Egoitz Zelaia, Odei Barroso raplariekin eta baita ere Eguren DJ-arekin!

Aurkezle batek gaiak eta ariketa desberdinak proposatuko dizkie eta gure raperoak jokoan sartuko dira hitzak inprobisatuz eta DJ-aren musika jarraituz! Arrats beroa eta erritmoz betea izanen da!!

Edariak eta jatekoa bertan

Erabilera anitzeko gelan • 13 urtetik goiti
Sartzea urririk



euskararen
urtarora

La saison de l'euskara

XEHETASUN PRAKTIKOAK



Osasun protokoloa

12 urtetik goiti, osagarri pasea beharrezkoa da

Erreserba

- Kultura eta Elkarte Bizia zerbitzua:
06 10 75 45 61 / animations@mairiedeciboure.com
- CPIE Euskal Itsasbazterra: 05 59 74 16 18 / lelicetche@hendaye.com
- Mediateka: 05 59 47 12 93 / mediatheque@mairiedeciboure.com
- Baltzan: baltsanelkartea@hotmail.fr



GURE BERRIAK JARRAITU INTERNETEN ETA SARE SOZIALETAN

www.mairie-ciboure.fr

 [cultureciboure](https://www.facebook.com/cultureciboure)

 [mediatheque.ciboure](https://www.facebook.com/mediatheque.ciboure)

